

Karateak ere badu zaletasunik

Pasa den hileko DROGETENITTURRIn arte martzialen bidea jorratzen hasi ginen judoari buruz herrian egiten zena plazaratuz. Honako honetan, karateari buruz hitzegingo dugu.

100 pertsona baino gehiago da biltza gaur egun Julen Gonzalez eibartarraren gidaritzapean, karate deritzon kirolaren barne. Gorputza egokira fisiko egokian mantentzeko zein lehiaketa mailan parte hartzeko aukera eskaintzen da, Bizkaia zein Estatu mailako txapelketetan ere hartzen dutela parte.

Karatea, egokira fisiko, psikiko eta moralerako baliabide gisa erabili izan da urteetan zehar. Ermuko kasuan, emakume askok defentsa pertsonalerako ere era-

biltzen omen dute. Txapelketa zein erakustalditan parte hartzen dute, gaur egun Euskadin bigarren taldea dela. Apirilean, Euskadiko Txapelketan parte hartu zuten, eta benjamin mailan Adrian Lombrana, Jon Ander Garcia eta Iker Rueda-k

Infantil mailan, Sergio Amador txapeldun gertatu zen, eta Estatuko Txapelketan aurreneko hamabien artean sartzea lortu zuen. Azkenik, jubentzetan Pablo Carballo eta Igor Garcia ermuarrek lehenengo bi postuak lortu zituzten.



Herri honetako karateken plantel eta maila ere ez dira txantxetan hartzeko modukoak.

Hil honetan Colindres-en (Kantabria) nazioarteko txapelketa batean parte hartuko dute, maiatzaren 18an Eskolarteko Txapelketaren finalean ere izanez. Karatea beraz, tradizio handia duen kirola dugu gure herrian; Julenek adibidez, dagoeneko 18 urte daramatza kirol

honen berri ematen, gaur egun Jator Kirol Zentruan.

*Testua- Asier Ibaibarriaga
Argazkia- Santos Vega*

Sabin Urkizu Harategia

Diputazioa 3, behea - Ermua


KALITATEKO EUSKO LABELA DUEN BERTIKO ABELGORRI OKELA SALTZEKO BAIMENDUA

CARNICERIA
SABIN URKIZU

Hemendik aurrera, gure harategian Kalitateko Eusko Labela duen Abelgorri Okela aurkituko duzu.

IZARRA

Garraioak



Valdespinako Markesa, 5 - 1.a
☎ 943- 17 01 01 • ERMUA

1997ko maiata

DROGETENITTURRI

30